

Politikaren ajeak eta loriak

Antton Izagirre

Herrietarrok egunerokotasunean politikari eskaintzen diogun arreta eskasa dela esango nuke. Mediatikoki deigarriak edo ikusgarriak egiten diren albisteetatik harago zail gertatzen zaigu herritar modura politikagintzan interesa jartzea; are gehiago, maiz, politikariek eskaintzen diguten irudi eta maila kaskarra aintzat hartuz gero.

Politikariek politikagintzak beharko lukkeen ospea eta eskatzen dituen praktika onak zapuzten dituzten neurrian, politikariengandik aldentzeko joera indartu egiten da. Egun hauetan bertan, Estatu espainoleko edo lurraldeetako –Nafarroakoa barne– aginte gobernuak osatzeko orduan talde eta interes pertsonalak lehenesteko ematen ari diren aulki jokoak ikusita, lilura gutxi sortzen dute politika-

riek bazterretan. Ondorioa ezin bestelakoa izan.

Edonongo etxe, lagunarte, lantoki, elkarte edo taberna giroko tertulia eta kontuen artean suma daitekeen mespretxua, atxikipen falta edo urrutiratzea nabarmenegia da. «Nik politikatik paso», «ni ez naiz politikoa», «denak berdina dira», «politikak du errua»... eta molde bereko esaldiak bolo-bolo dabiltza gure artean.

Egungo gizarte eremuan, batzuek interes handia dute “politika” kontzeptua profesionalen jardun modura ikustarazteko eta herritarrok ikusle anonimo izatera muga gaitzen. Eta hori, inongo zalantzarik gabe, gizakiaren berezko izaeraren aurka ezarritako molde da.

Politika, zentzu etikoan, gizartearen-tzat helburu baliotsuak lortzera zuzen-

duriko jardun modura hartuko balitz, oso bestelakoa litzateke gehienon aurreiritzia.

Gizakiok talde modura edo bakarka hartzen ditugu erabakiak: zer jan, nola jantzi, nola hitz egin, nola antolatu, elkar nola zaindu, nola maitatu, nola bizi, nola hil... Eta hautatzen dugun neurrian, hautu politikoak dira.

Zorionez, berriki egin diren udal hauteskundeetako herrietako zerrendak osatu direnean, aurrez politikari izateari uko egin dion ehunka lagun, politikari bilakatu dira ia nahi gabe. Gutxien espero zuenak, aurretik esperientzia handirik izan gabe ere, egun batetik bestera urrats bat aurrera emateko deia jaso du eta gauetik egunera politikari bilakatu da. Herritar modura, politikariak zentzu zabalean. Mirestekoa! •

Igerilekuko txanoa gaizki geratzen zaizu zuri ere

Miren Azkarate
Badiola

Uda iritsi da eta beste hamaika planen artean aurten ere herriko igerileku irekietara joan naiz. Eta urtero bezala galdera berdina etorri zait burura: zergatik da derrigorrezkoa bainatzeko igerilekuko txanoa?

Ez da soilik estetikoki denoi, bai bai denoi, gaizki gelditzen zaigula, oso deserosoa da lagunartean edo umeekin egon eta ditzosozko txanoa hortxe edukitzea, buru gainean.

Kasu hauetan egiten dudana legez, Internetera jo dut eta ondorengo galdetu diot dena dakien Google andereari:

zergatik da derrigorrezkoa igerileku irekietan txanoa erabiltzea?

Erantzuna, higieena. Ados. Bai norberaren burua eta baita igerilekuak ere garbi mantentzea da arrazoi nagusia. Kloroarengandik eta urak dituen beste produktu kimikoengandik babesteko balio du txanoak. Ados, baina beste gorputz atal eta ile guztiak zer dira ba, bigarren mailakoak? Horiek ez dira babestu eta garbi mantendu behar?

Buruko ileek igerilekuko hodiak eta zirrikituak tapatu eta zikintzen dituztela da beste arrazoiak. Ados. Ba nik ni

re buruko ileak baino ile luzeagoak dituzten gizonen bularraldeak ikusi ditut ba! Horiek ez al dute ba tapoirik egiten eta garbitasuna arriskuan jartzen?! Mesedez!

Hauek arrazoi nagusiak. Ez dut zerrendan jarraituko, nagusiak zeintzuk diren ikusita... Arren, otoi, mesedez eta faborez, ez dakit nor den horren arduraduna, baina ziur nago zuri ere deserosoa zaizula eta batez ere gaizki geratzen zaizula, erridikulua egiten dugul! Eta txanoarekin edo gabe berdina zikintzen gara eta dugu! Zikina dena zikina da txanoarekin eta gabe! •